



4 KULTURA

Literatur

Lehiaketan sariak bihar banatuko dira

Lasarte-Oriako XXIX. Literatur lehiaketa eta Haur eta gazte XXVIII. Literatur lehiaketako sari banaketa bihar izango da Manuel Lekuona kultur etxean. Adinaren arabera, mikrokontakizunak edo ipuinak eta olerkiak aurkeztu dituzte eta Lasarte-Oriako literatura lehiaketak harrobia duela argi geratu da, iaz baino 50 lan gehiago aurkeztu baitira haurren lehian.

5 GIZARTEA

Genero indarkeriaren aurkako egitaraua martxan

Asteartean hasi zen Lasarte-Oriako Udalak antolatutako emakumeen indarkeriaren aurkako egunaren egitaraua. Diruaren sexu ezkutua izeneko erakusketak atek ireki zituen Antonio Mercero gunean. Inaugurazio modura *Larre motzean* dokumentalaz gozatu ahal izan zuten herritarrek. Erakusketak emakumearen eta diruaren arteko erlazioa erakusten du emakumeen testigantzak jasoz. Emakumea "diru txikiaren" arduradun zela eta, garai ezberdinetako diru zorroak daude ikusgai.



Herritarrek azaroaren 28ko jaialdian parte hartzera animatzen dituzte Jalguneko kideek eta udal ordezkariak.

Emozioak Jalguneren eskutik

Jaialdia eta erakusketa antolatu dituzte urritasun eguna ospatzeko

Abenduaren 3a urritasuna duten pertsonen eguna da. Lasarte-Orian bada egun hau ederki ospatzen duen talde saltsero bat, Jalgune elkarte. Horretarako, jaialdi paregabe antolatzen dute eta urtero aho zabalik uzten dute bat baino gehiago. Aurten azaroaren 28an, 18:00etan izango da hitzordua Manuel Lekuona kultur etxean.

Azaroaren 28an, Jalguneko lagunek eta udal ordezkariak, Jesus Zaballos alkateak eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzueta-ko batzordeko lehendakariak, aurkeztu zuten aurtengo ekitaldia. Aurtengo 'Elkar sentitu ta emozioak handitu' jaialdia bederatzigarrena izango da.

Aurtengo leloak dioen moduan, emozioak izango dira gai nagusia.

Idoia Ayesa eta Tamara Ramos Jalguneko begiraleek azaldu zuten, "emozioek gure sentimenduak adierazten

laguntzen digute, sozialki komunikatzeko dugun kode bat da, eta aldi berean gizar-tearen parte sentitzen laguntzen digu", aipatu zuten.

Emozioak modu ezberdinetan interpretatu edo bizi daitezke eta honek esanahi anitzak izan ditzake. Jalguneko gazteek agerraldian horren adibideak eskaini zituzten. Esate baterako, Idoia haserretzen da bakarrik dagoenean; Joserra pozten da kafesnea goraino jartzen diotenean edo Kontxiri Joserrak berak ematen dio bizipoza!

Egitaraua

Manuel Lekuona kultur etxe-ko inguruetan arratsaldeko 18:00etatik aurrera jai giroa izango da nagusi, Oaintxe in de! txarangari esker.

18:30ean hasiko da jaialdia. Honetan gazte, guraso eta begiraleek haien emozioak aterako dituzte argitara esketxetan, baina ikusleei ere emozio ugari sentiaraziko dizkiete.

Antzerkitxo hauetaz gain, Semblante Rociero koruaren laguntza ere izango dute jaialdian eta hauen doinuez ere gozatu ahalgo da.

Erakusketa eta boligrafoak

Horrez gain, agerraldian azaldu zuten, abenduaren 3tik 18ra argazki erakusketa antolatu dute Antonio Mercero erakusketa gelan.

Eta bai jaialdian baita erakusketan ere, Dravet sindromearen fundazioaren ekimenarekin bat eginez, erabilitako boligrafoak, erro-tulagailuak, barrako pegamentua, portaminasak edota fluorezenteak jasoko dituzte.

Jasotako materialak sindromearen ikerkuntza aurrera eramateko funtsak lortzen lagunduko du.

Jalguneko gazte, senide eta begiraleek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte jaialdira, "gure emozioak senti ditzazuen eta guk zuek sentitu zaitzategun, hau da, emozioak elkarbanatu ditzagun!", baita boligrafo bilketan parte hartzera ere.

Entsegatzen jarri ziren Jalguneko kideak aurkezpena amaitutakoan, 28ko jaialdia primeran atera dadin.

2. betaurrekoak
DOAN
GAMA ALTUKO
mó progresiboak
erosita
197€

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA
Kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Neure kabuz



Maider Segurola

Autobusa

Autobusean ari naiz hitz Ahauk idazten. Donostiatik Lasarterako autobus berdean. Asteazken zeharreko azken zerbitzuan, dena esate aldera. Eta guztia aitortzen hasita, zutabe hau entregatzeko ordu gutxi geratzen direnean gainera. Ditzosozko deadlinea... Erretratuak egiten dituzten margolarien gisan, ingurura begiratu dut ikusten dudana paperean jartzeko. Azken hilabeteetan mesanotxean zabaldu gabe izan dudana Michel Houellebecqen « Soumission » liburua irakurtzen hasteko egun egokia iruditu zitzaidan pasa den larunbata eta poltsan daramadanez, berau darabil papera jartzeko euskarri gisa.

Eserita nagoen eserlekutik ingurura begiratu eta alboan, parean eta ezker-eskubi ditudan gehienak mugikorrari begira daude, imnotizatuta bezala. Zoritxarrez honek ez du inor harritzen egun. Begirada berriro paperetik altxata halere, mugikorraren alienaziotik haratago bada nire arreta erakarri duen beste zerbait ere. Kalkulu azkar bat eginda autobusean goazenon artean laurdena inguru etorkina izango da. Lanetik etxera doazen gizon emakumeak izateko itxura dute denek. Gainontzeko bidaiarien artean ordea... ongi erreparatu eta... ez, ez dago gizon ezko bakar bat ere. Gazte, heldu zein adineko, denak dira, denak gara, emakumezkoak.

Kasualitate hutsa dela iruditu zait lehendabizi baina ongi pentsatzen jarrita, edozein autobus bidaiatan jolas hau eginda, agian emaitza ez litzateke hain ezberdina. Aprobata egingo dut hurrengoan ere, gaurkoz behintzat nire geltokira heldu naiz eta.

Zorion agurrak



Haritza

Zorionak txapelduna zure hamargarren urtebetetzean! Asko maite zaitugu... Muxu handi bat amatxo, Eneritz eta aita-txoren partetik!!



Hodei eta June

Zorionak polittak! Oso oso ondo pasa zuen 8. urtebetetzean!



Unai

Oso oso ondo pasa!!!! Asko maite zaitugu!! Iker, Jon eta amaren partetik.



Aintzane

Zorionak Aintzane, 9 urte, muxu handi bat familia guztiaren partetik, asko maite zaitugu. ZORIONAK!!!!



Ricardo eta Maria

Bikote gutxi dira ezkonutako 50. urteurrena ospatzen dutenak. Ricardo eta Mariak bete dituzte eta azaroaren 21ean ospatuko dute, ezkondu ziren eliza berean, San Pedro parrokian. Mila zorion zuen seme-alaba eta biloben partetik.



Anartz

Zorionak politta!! 3 muxu potolo etxekoaren partetik, maite zaitugu.



Leire

Zorionak printzesa! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. 11 muxu goxo Iraia, amatxo eta aita-txoren partetik.



Aiur

Zorionak politta!!! Zure bigarren urte honetan asko disfrutatu dugu zurekin, bi muxu pottolo zuretzat familiaren partetik.



Noa

Zorionak eta bi muxu pottolo aiton-amona eta familia guztiaren partetik.



Natalia

101 URTE! Zorionak Natalia! Muxu gozo bat zure familiaren partetik. Maite zaitugu!

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

• Autokarabana batentzat egokituriko garajea saltzen da. 56 metro karratu. 630 752 858.

Salerosketa

• Baserriko kutxa salgai. 688 615 916

Lan-eskaintza

• Garbitzailea bilatzen da gabonetan elkarte gastronomikoa garbitzeko. Ordezkapena. 17:00etatik 20:00tara deitu. 658 725 463.

Lan-eskaria

• Emakumea eskaintzen da arratsalde lan egiteko, 15:00etatik aurrera. 639 740 900.
• 31 urteko emakumea, saltzaile edo adminis-

traztaile lan bila nabil. 675 703 163, Berta.

• Gizona eskaintzen da eskutitzak edo publizitate banatzeko. 943 364 527.

• Jende nagusia zaintzeko, baserrian lan egiteko edota beharrezkoa den lanetarako prest nago. Ronald. 677342358

Bestelakoak

• Azaroak 28rako Xirimiren omenaldia dela eta, begiraleak behar dira 10:30etik 16:30era. Bi turno egingo dira. Izena emateko, xirimirilibre@gmail.com.

• Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Heriotzak

Heriotzak

- Consuelo Leon Labrador, azaroaren 14an, 75 urte zituela.
- Carmen Hernandez Gascon, azaroaren 13an, 82 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 20	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 21	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 22	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 23	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 24	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 25	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 26	Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Ostirala, 27	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 28	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 29	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 30	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 01	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 02	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 03	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652


GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Martin Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

HITZARMENA



Aitor Carrasco Gureak taldeko eta Udaleko ordezkariekin, akordioa eskuan dutela.

Urritasuna duen pertsona kontratatze hitzarmena

Pauso berriak egitasmoaren barneko kontratazioa da

Udalak eta Gureak eta Atzegi taldeek Aitor Carrasco lasarteoriatarra birkontratatze akordioa sinatu zuten asteartean Udaletxean. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duen Pauso Berriak kanpainaren barneko kontratazioa da, eta kasu honetan, hirugarren urtez arituko da lanean Manuel Lekuona kultur etxean.

TXINTXARRI

Udal Liburutegiko eta artxiboko laguntzaile lanak egingo ditu Aitorrek beste urtebetez behintzat. Hala dio Udalaren izenean alkate Jesus Maria Zaballosek, Atzegiren izenean Jose Luis Basokok eta Gureaken izenean Iñigo Ormazabalak sinatutako hitzarmenak.

Fitxak ordenatu, liburuak eta CDak bere tokian ipini, fotokopiak egin, egunkariak

erosi eta beste hainbat zeregin edukiko ditu 34 urteko gazteak.

Aitor pozik agertu da eta hurrengo urtera begira ere jarri da. Izan ere, laugarren urte batez arituko ote den galdetu baitu.

Udalak dirulaguntza eta lanerako ingurunea eskainiko dio. Gureak-ek, berriz, proiektua kudeatu beharko du, eta Atzegi laguntza ekonomiko maneiatu eta sentsibilizazio sozialerako tresnak garatu.

Lana ohiko giroan

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duen Pauso Berriak ekimenaren barnean lortutako akordioa da.

Adimen urritasuna duten pertsonak testuinguru laboralera era normalizatuan txertatzeko helburua du programak. Horretarako, erakunde eta enprekin hitz egiten dute pertsonaren arabera lan mota aurkitzeko.

Formazioa jasotzen dute lanerako oinarriko abileziak trebatzeko eta, ondoren, ikuskatutako praktikak. Helburua, testuinguru laboralera normaltasunez egokitzea eta aritzea da. Aitorren kasuan, bi urtez ibili da modu egokian eta beste urtebetez behintzat egingo du lan.

Atentatuak gaitzesteko elkarretaratzea

Lehenengo asteko ostiral gauz Parisko hainbat gunetan egin zituzten hilketak salatu asmoz, elkarretaratzea egin zuten astelehenean Udaletxe zaharrean eguerdiko 12:00etan.

Udal Gobernu eta talde politiko guztietako ordezkariak egon ziren bertan. Zenbait herritarrek ere parte hartu nahi izan zuten, eta bai aterpean baita eliza atarian ere elkartu ziren sarraskiari euren gaitzespena adierazteko.

Elkartasun adierazpena

Udalak larunbatean egindako adierazpen instituzionalean salatu zuen atentatua.

“Basakeriaren aurrean demokraziarekin, justiziare-



Talde politiko guztiek gaitzetsi zuten Parisko sarraskia.

kin eta askatasunarekin erantzun” behar dela azpimarratu zuen astelehenean alkateak.

Lasarteoriatar guztien izenean sarraskiaren biktima eta

haien familiekin gogoratu nahi izan du. Doluminak eman eta Frantziako herriari elkartasuna eta babesa eskaini die.

IPUIN KONTALARIA

Ipuinekin sentimenduetan arakatzeko aukera

Astelehenean, azaroaren 23an, hiru eta lau urteko haurrentzat ipuin kontalaria egongo da Amaraun ludotekan.

Arratsaldeko 18:00etatik 19:00ak arte txikienentzat ipuin kontaketa egingo da Amaraun Ludotekan. Helburua istorioaren bitartez sentimenduak lantzea da. Jolas, abesti, poesia eta bestelako ekintza entretenigarriek euren burua eta sentitzen dutena hobeto ezagutzen lagunduko diete.

Azken saioa abenduaren 14ean egingo da, eta maitasuna landuko dute.

IKASTAROA

Janari-Manipulatzailerik ikastaroa

Elkolab enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun Departamentuarekin elkarlanean, janari-manipulatzailerik ikastaro berri bat emango du. Ostalaritzako sektoreari zuzendua dago eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiak ditu.

Ikastaroa azaroaren 24an emango da Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Ordutegia 16:00etatik 20:00ra bitartekoa izango da. Prezioa 45 euro pertsonakoa da, eta prezio berezia langabetuentzako 35 euro.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu OMIC 943361605 edo Elkolab 943533303 telefonora.

DANTZA

Plaza dantza saioa igandean

Azaroko laugarren igandea dugu aste honetan, azaroaren 22a eta hilabeteroko hitzorduari eutsiz, plaza dantza saio izango da. Eguerditik 13:30era, muxikoak eta plaza dantzak ikasi edo dantzatu nahi duten herritarrek aukera izango dute Okendo plazan.

Erketz EDT, Kukuka antzerki eta dantza taldeak eta Ttakun KEk antolatutako ekimenak dantzarekiko zaletasuna sustatzea du helburu.



HAUSTESKUNDEAK

Abenduaren 20ko mahaiak osatu dira

Estatuko Kongresua eta Senatua osatzeko hauteskunde eguna izango dira abenduaren 20a. Atzo Lasarte-Oriako hauteskunde-mahaietako kideak eta haien ordezkariak erabaki ziren Udalean izan zen ez ohiko Udaltzarrean.

Joantxo Morcillo Udaleko informatikariak eskaintako datuen arabera, errolda-zerrendetan hautesle izan ezin diren herritarrek kontuan izanik, 216 kargu betetzeko 9.780 hautesle zeuden.

Izendatutako herritarrei aste honetan bidaliko zaie jakinarazpena eta mahaiakide izatea eragozten dieten arrazoak edo aitzakien alegazioa egiteko zazpi egun dituzte. Zerrendak Udaleko weban eskuragarri daude.

SANTA ZEZILIA

Alboka eta Ibaeta abesbatzen emanaldiak

Igandean, Santa Zezilia musikariaren zaindariaren eguna dugu. Hori dela eta, Alboka Abesbatzak ohitura duen legez, bere kide eta lagunekin egun berezi hau ospatuko du.

Lehenik, Arantzazuko Amaren elizan 12:00etako meza girotuko du. Ostean, guztiak ‘El Jardin’ jatetxera hurbilduko dira bazkaltzera.

Bestalde, Ama Brigitarren komentuko 11:00etako mezan, Ibaeta abesbatza izango da. Mezan hiru kanta abestuko dituzte eta hau amaitzean, euskal doinuez osaturako emanaldia eskainiko dute, hala nola, ‘Maite’, ‘Goizian argi hastian’ edo ‘Herribera’.

Literatur Lehiaketako sariak, bihar

Haur eta helduen sariak Kultur etxeko hitzaldi aretoan banatuko dituzte

Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketak baditu irabazleak, eta bihar sarituko dituzte Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Helduen 29. edizioa izan da 2015ekoa, eta haur eta gazteena, aldiz, 28.a. Euskarazko eta gaztelaniazko piezak aurkeztu dituzte, eta gaztetxoek kategorian lan kopuruak gora egin du. Aurten ere herriko, inguruko eta leku askotako idazlanen artean aukeratu behar izan du epaimahaiak.

TXINTXARRI

Irabazleak irailaren 21etik 24ra eman zituen ezagutzera lehiaketetako epaimahaiak kideek. Bihar, berri, egindako lan onak aitoren materiala izango du. Izan ere, eguerdiko 12:00tan Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan sari banaketa egingo dute.

Bi lehiaketa batean

Helduen lehiaketa eta haur eta gazteena antzekoak dira formatuari dagokionez, baina idazlan mota ezberdinak bidali behar dituzte batean eta bestean.

16 urtez gorakoek haien lanak mikrokontakizun eta poesia formatuetan aurkeztu zituzketen. Bi kategoriatan banatu dituzte lehenak. 1985 eta 1999 artean jaiotakoek A multzoa osatu dute eta zaharagoek, B multzoa. Lasarte-

riatar onenei ere saria eman zaie.

Ume eta gaztetxoak, aldiz, poesiak eta kontakizunak bidali dituzte lehiaketara. Adinaren arabera hiru taldeetan banatu dituzte: 2006 urteaz geroztik jaiotakoak, 2003 eta 2005 artekoak eta 2000. urtetik 2002ra sortutakoak.

Idazle gazte gehiago

Haur eta gazteen lehiaketako albiste positiboa da aurkeztutako lan kopuruak nabarmen gora egin izana.

Guztira, 2014ean baino 50 idazlan gehiago aurkeztu dituzte: euskarazko 24 eta gaztelaniazko 26.

Itxaropentsua da txikiaren kasua. Gaztetxoek kategorian 81 ipuinek hartu dute parte euskarazko lehiaketan. Lehengo urtean soilik 28 izan ziren. Bestalde, B kategorian guztira 72 idazlan gutxiagok



2014ko saridunak Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

hartu dute parte. Hala ere, jendetsuena izaten jarraitu du: gaztelaniazkoak eta euskarazkoak batuta 344 lan.

Musika eskolaren laguntza

Larunbateko ekitaldean Lasarte-Oriako musika eskolako kideek ere parte hartuko dute. Euskarazko eta gaztelaniazko poesia irabazleak irakurriko dira gitarra klasikoaren laguntzaz. Ivan Moreno ikasleak joko du instrumentua eta Noemi Fernandezek irakurriko ditu idazlanak.

2014ra atzera begira

Lehengo urteko edizioari dagokionez, Mikele Mannionek eta Iñaki Goitiak irabazi zituzten euskarazko mikrokontakizun sariak, 'Beste astelehen euritsu bat' eta 'Esperoan, beti esperoan' lanei esker. Gaztelaniaz Federico Luis Leto eta Miguel Angel Escudero izan ziren garaile.

Euskarazko poesia saria zuri geratu zen, epaimahaiaren ustez ez baitzen garaile izatea merezi zuen lanik.

Rafael Bravok irabazi zuen gaztelaniazko garaikurra.

Haur eta gazteen lehiaketarek dagokionez hauek izan ziren saridunak: Nikola Iraola, Maider Abete, Laura Perez, Ane Jimenez, Naroa Garcia, Nora Landaberea, Ximon Villalobos, Unax Otaegi, Xalba Otxandorena, Gorka Cuadrado, Julene Iraola, Nerea Martín, Nagore Lopez, Mikel Nieto, Maria Martín, Ohiane Izagirre, Jessica Fuentes, Nahia Rozas eta Maialen Letamendi.

Arazo psikologikoak literaturan

Hilabeteroko hitzorduari huts egin gabe, astear-tean Irakurle Txokoko kideak euskal literaturari buruz hitz egiteko bildu ziren Manuel Lekuona kultur etxean. Zehazki, 'Ni, Vera' liburua aztertu zuten eta Itxaso Martin idazlearen bisita ere izan zuten.

Lehenik, Uxue Alberdiren laguntzaz liburuari buruz zuten iritzia eskaini zuten eta pertsonaiak eta haien istorioak ere aztertu zituzten.

Liburuak Martina eta bere birramonaren historia kontatzen digu. Martina ez dago ondo eta ez daki zer duen. 30. hamarkadan bere birramonak bizitakoa jakinda bere egoera uler daiteke. Idazleak pertsonen alde iluna azaltzen du.

Era berean, arazo psikologikoak orain edo iraganen estaltzen saiatzen direla argitaratu ematen du eta 30. hamarkadan emakumea eta zoramenaren artean egiten zen lotura ere azaleratzen du, hein batean.



Irakurle Txokoko lagunak Itxaso Martinekin, Uxue Alberdiren ondoan, solasean egon ziren.

Tesia

Ostean, Itxaso Martin idazlearen eskutik, istorioaren nondik norakoetan sakontzeko aukera izan zuten. Esate baterako, Veraren pertsonaia eta honi gertatutako Itxaso Martinen birramonaren bizitzan

oinarrtua dagoela. Honi bisitak egiten zizkion idazleak eta berak bizitako egoera baten ostean, jakinmina sortu zitzaion.

Honekin lotuta gainera, Martinek emakumeen eta psikiatriaren arteko loturari

buruzko tesia egin duela ere jakin zuten.

Tesiaren ikerketa nola egin duen eta hau nola idatzi duen ere azaldu zuen saioan. Hala nola, ikerketan psikiatrikoko artxiboetako 8 emakumeetan oinarritu dela aipatu zuen eta

bertan dioena eta ez dienez eta berak psikiatrikora egindako bisitetan eta emandako literatura tailerrean ikusitakoaz baliatuz, haien 'hizkuntzan' idatzi duela adierazi zuen. Honetaz gain, 30. hamarkadako morala kontuan izanik, emakume hauekin gertatzen zena irudikatzen saiatu da ere tesian.

Txokoko kideek adi entzun zituzten idazlearen azalpenak.

Literatura galegoa

Hurrengo saioa abenduaren 15ean da. Honetan Iolanda Zuñigaren 'Post-it bizitzak' liburua aztertuko dute.

Galizieraz idatzitako 46 istoriotxo dira Iolandak bere liburuan aurkeztu dituenak. Baina Iñigo Roquek euskarara itzulitako bertsioa landuko dute. Kontakizunek garrantzua, amorrua, ironia eta umore beltza ere badute.

Irakurle Txokoko kideek herritarrak animatzen dituzte solasaldi literario hauetan parte hartzerako.

Azaroaren 25eko ekintzak martxan

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egitaraua abian jarri zen asteartean

Diruaren sexu ezkutua erakusketak eta **Larre motzean** dokumentalek ireki dute 27ra arte luzatuko den ekintza sorta. Alkateak azpimarratu du "gaitzarekin behin betiko" amaitzeko horrelako ekintzak beharrezkoak direla. Emakumearen eta diruaren arteko elkarreragina islatzea du helburu bi astetan ikusi ahal izango den erakusketak.

Azaroaren 25a emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna dela baliatuz, erakusketak, antzerkiak eta beste zenbait ekintza egingo dira.

Egungo gizarteak duen arazo larrietakoa dela azpimarratu du alkate Jesus Maria Zaballosek. Eta, beraz, "erakundeen betebeharra" dela sexu indarkeriaren aurka borrokatzea.

Ekintzetako bat dugu, *Diruaren sexu ezkutua* izeneko erakusketa.

Inaugurazioa Haurralde fundazioko Patricia Viviana Poncek dinamizatu du. Haiek dira erakusketa eta ondoren proiektatutako *Larre motzean* dokumentalaren egileak. Garai eta leku ezberdinetako emakumeen diru zorroak bildu dituzte.

Emakumearen eta diruaren arteko erlazioa azterzeko asmatan sortu zen ideia eta modelo eta istorio anitzak jaso dituzte.

Azaroaren 26ra arte egongo da ikusgai Okendo plazako Antonio Mercero aretoan.

Euskal emakumeen lanaren errebidinkazioa

Baserriz baserri ibili ziren emakumeen testigantzak jasotzen. Bakoitzaren esperientziak ezberdinak izan arren, badira elementu komunak.

Esaterako, azpimarratu dute emakumea "diru txikiaren" arduraduna izan ohi zela. Hortik datoz diru zorroak, eguneroko kudeaketa haiek egiten baitzuten. "Diru handia", aldiz, gizonen esku zegoen. Garai batean zailtasunak zituzten operazio ekonomiko handiak emakumeen izenean egiteko, eta senarraren, aitaren edota semearen izenean gauzatzen ziren; nahiz eta askotan emazteak, amak eta alabak izan erabakia hartzen zutenak.

Beldur barik

Lasarte-Oriako Beldur Barik bideo lehiaketako sari bana-keta, bestalde, gaur egingo da kultur etxean 19:00etan. Aurkeztutako lanak erakutsiko dituzte eta, ondoren, saridunak jakitera emango dira.



Egitaraua aurkezten berdintasun teknikari Yoana Azpitarte, alkate Jesus Maria Zaballos eta zinegotzi Maite Iglesias, hurrenez hurren.



Goiko argazkian hiru gazte 'Diruraren sexu ezkutua' erakusketa ikusten, eta 'Larre Motzean' dokumentalaren proiektzioa behekoan.

Ez da medikua, baina gure osasuna zaintzen du.

Ez da ingeniaria, baina gure paisaia zaintzen du.

Ez da irakaslea, baina gure kultura zaintzen du.

Hori da geurea

Horrelakoak dira gure ekoizleak

Profesional handiak, guretzat elikagai osasungarri, samur eta naturalak ekoizteaz gain, gure osasuna, paisaia eta kultura zaintzen dutenak.

Horregatik, elikagai hauek kontsumitzea **ona da denontzat.**

Goi mailako kalitatea eta jatorri deitua duten elikagaiak



LABURRAK.-

Lautik lau norgehiagoka irabazi zituzten Beltzak errugbi taldeek asteburuan

Garaipen-uzta ezin hobea bildu zuten Beltzak taldeek asteburuan; lau norgehiagoka jokatu eta beste hainbeste irabazi zituzten. Ohorezko B mailako seniorrek 29 partidua daramatzate jarraian liga erregularran galdu gabe; 27-7 hartu zuten mendean Real Oviedo Rugby larunbatean, Zarauzko Asti zelaian. 18 eta 16 urtez azpiko taldeek Bilboko El Fango zelaian jokatu zuten Universitario Bilbaoren aurka; 19-38 eta 7-40 irabazi zuten, hurrenez hurren. Azkenik, 14 urtez azpiko gaztetxoek puntuak bueltan ekarri zituzten Logroñotik, etxeko taldea 29-36 garaituz.

Buruntzaldea IKTKo gaztetxoek saio bikainak burutu zituzten Tolosan

Herriko igeriketa taldeko 40 benjamin eta 23 alebin aritu ziren igerian Tolosako Usabal kiroldegian pasa den larunbatean. Benjaminek KZL eta Test 1go jardunaldian hartu zuten parte, estilo askotako probak burutuz: bizkarra, bularra, erreleboak... Emaitzak baino, araudia behar bezala betetzea eta igerian teknika egokia erabiltzea baloratzen dituzte taldeko prestatzaileek, eta gustura geratu ziren arlo horri dagokionean, 2007an jaiotakoekin batez ere, euren lehenengo konpetizio asteburua baitzen.

Alebinek ligako bigarren jardunaldi paregabea osatu zuten. 2002an jaiotakoan artean, Lander Sorozabal bigarren izan zen 200 bizkar proban. Proba horretan bertan baina 2003koen mailan, Unai G. Somovilla erabat nagusi izan zen eta baita 100 bularrekoan ere. Urte horretan jaiotako nesken artean, Leire Martin lehenengo izan zen bi proba horietan. Azkenik, 2004an jaiotakoan artean, Joane Arzalluzek bigarren eta hirugarren postuak eskuratu zituen, eta Ane Artola hirugarren izan zen 200 bizkarreko proban.

Buruntzaldea IKTKo prestatzaileek aipatu dute maila bikaina erakusten ari direla alebinak, nahiz eta oraindik ikasteko eta hobetzeko kontzeptu asko dituzten.

Emakumeen Lurralde mailako taldea igoera fasea jokatzeko sailkatzeko lehian

Azken urteetako denboraldi onena burutzen ari dira Ostadar SKTKo emakumezko erregionalak. Sailkapeneko bigarren postuan daude sailkatuta 16 punturekin, Euskal Ligara igotzeko faserako sailkatzeko lehia betean. Asteburu honetan Tolosaren aurka neurtuko dituzte indarrak Usabalg zelaian; Ostadarren atzetik daude tolosarrak sailkapenean, puntu bakarrera. Neurketa irabazten duenak aurrerapauso garrantzitsua emango luke igoera fasea jokatzeko. Printzipioz multzo bakoitzeko hiru lehenengoak eta laugarren onena sailkatuko lirarteke fase horretarako, baina ez da ziurra, aldatu egiten baita urtetik urtera.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 21

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Sporting de Herrera
Jubenilen Ohorezko maila,
10. jardunaldia.

Tolosa, Usabal, 12:30ean

Tolosa CF - Ostadar SKT
Infantilen Ohorezko maila,
8. jardunaldia.

Michelin, 13:30ean

Ostadar SKT - Lengokoak KE
Kadeteen Ohorezko maila,
10. jardunaldia

Berio, Donostia, 14:50ean

Antigua Luberri KE - Ostadar SKT
Kadeteen I. maila,
10. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Axular KKE
Erregionalen I. maila,
10. jardunaldia.

Michelin, 17:30ean

Ostadar SKT - Oiartzun KE
Erregionalen Ohorezko maila,
11. jardunaldia.

Urnieta, 18:00etan

Urnieta KE - Ostadar SKT
Jubenilen I. maila,
10. jardunaldia.

Igandea 22

Tolosa, Usabal, 12:00etan
Tolosa CF - Ostadar SKT
Emakumeen Lurralde maila,
9. jardunaldia.

Orio, Mendibeltz, 16:30ean

Getariako Keta - Texas Lasartearra
Erregionalen I. maila,
10. jardunaldia.

Donostia, Felix Garin, 17:00etan

Sanse - Ostadar SKT
Errendimenduko infantil txikiak,
1go jardunaldia.

HERRI KIROLAK.-

Urtzi Telleria garaile Amezketan

Sei aldiz altxa zuen 165,8 kiloko Albitzuri-Aundi harria

Aimar Irigoien lagunak bezala, Albitzuri-Aundi harria sei aldiz altxa zuen Urtzi Telleria lasarteoriarrak baina azken honek jantzi zuen txapela azkenean, errezildarrak baino kilo gutxiago pisatzen baititu. Aipatu du ez zuela espero irabaztea, baina oso gustura da lortutakoarekin.

TXINTXARRI

Haren izena ez zegoen faboritoen zerrendako lehen postuan; sailkapenekoan bai, ordea. Amezketako Larrunari pilotalekuan aritu zen Urtzi Telleria herritarra igandean, Albitzuri-Aundi ia 166 kiloko harria nork gehiagotan altxa. Telleriak sei alditan eraman zuen bizkar gainera, Aimar Irigoien errezildarrak bezainbestetan. Herritarrak kilo gutxiago pisatzen ditu ordea, 82, eta horregatik hark jantzi zuen txapela.

Bost altxaldi eginak zituen Telleriak 2010ean, eta horiek gairatzeko xedearekin joan zen Amezketara igandean: "Gure lana egitera joan ginen, neurtu genuen zenbat denbora behar izan nuen lehenengo altxaldia egiteko eta hortik aurrera egin nituen gainontzekoak", aipatzen du harri-jantzaileak. Kopurua igotzeko



Gogotik ospatu zuen Telleriak igandeko garaipena, Amezketako alkatea alboan zuela.

taktika argi zeukan Telleriak: "Altxaldi bakoitzaren arteko denbora murriztu dugu; bi minutu eta 20 segundo behar izan nituen 2010ean, eta aurreten kronometroari 20 segundo horiek jan dizkiot".

Sei aldiz altxa zuen Albitzuri-Aundi harria Telleriak, hamar minutuko txandan. Arestian aipatutako erritmo konstante hori baliatu zuen herritarrak marka pertsonala hobetu eta txapela jantzeko.

Harri irregularra

Albitzuri-Aundi harria ez da menderatzen erraza: 166 kilo inguru pisatzen ditu eta helduleku finkorik ez dauka. Sei harri-jantzaileek gogotik izerditu behar izan zuten harria lurretik altxatzeko. Aimar Irigoien errezildarra laguna du Telleriak, eta hamar minutuz arerio Amezketan. Txapelke-

tari ekin aurretik Irigoien zen faborito nagusia. Telleriaren marka bost minutuan berdindu zuen, baina erritmo bortitz horrek erabat hustuta utzi zuen errezildarra eta ezin izan zuen gehiagotan altxa harria. Euskadiko harri handien txapelkun Jokin Eizmendik zarautzarrak berriz, bost egin zituen. Atzetik sailkatu ziren Izeta IV.a (3 altxaldi), Iban Ugartemendia (3) eta Aimar Galarraga (1).

Abenduan 30 urte beteko ditu Telleriak, "harriak jasotzeko adin-tarte onenean nago, 28 eta 33 urte artean, hori entzun dut nik behintzat", aipatzen du. "Urteen poderioz zailmena irabazten duzu, baina kemen apur bat galdu ere bai". Bertute horiek erabili beharko ditu laster, gabonetan jokatuko duen pisu bikoitzeko txapelketan.

IGERIKETA

Larunbata 21

Ordizia, 16:00etan

Buruntzaldea IKTKo igerilari infantil, junior eta absolutuek Neguko ligako bigarren jardunaldia jokatuko dute Ordiziako igerilekuan.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol txapelketako hamargarren jardunaldia.

Ostirala 20

Michelingo kirol gunea, 20:45ean

Txoko - TSST

Larunbata 21

Michelingo kirol gunea, 9:15ean

Urdaneta HK - Kattagorri Insausti

Michelingo kirol gunea, 10:15ean

Izkiña - El Punto

Michelingo kirol gunea, 11:15ean

Trumoi - Reformas Lagunak

Michelingo kirol gunea, 12:15ean

Viña del Mar - Indaux

Tolosa, Usabal kiroldegia, 16:00etan

Laskorain KE - Ostadar Antonio
Nazional Ligako III. maila,
8. jardunaldia.

Arrasate, Musakola kiroldegia, 18:00etan

Mondrate CD - ISU Leihoak
Gipuzkoako I. maila,
7. jardunaldia.

PILOTA

Ostirala 20

Asteasuko Usarrabi pilotalekua, 21:15ean

Atzapar - Intza KE
Gipuzkoako Igo mailara igotzeko fasea, finalurrekoa. Irabaziz gero igota legoke herriko taldea.

Igandea 22

Markina, 17:00etan

Markina - Intza KE
Euskal Herriko klub txapelketan eman du izena herriko taldeak; lehenengo kaleratze errondako joaneko partida jokatuko dute.

SASKIBALOA

Larunbata 21

Kirodegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Soralue Bergara
Partizipazioko junior neskek,
8. jardunaldia.

Kirodegia, 18:15ean

Ostadar SKT - Easo 01
Errendimenduko kadete neskek,
9. jardunaldia.

Igandea 22

Kirodegia, 11:00etan

Ostadar SKT - Bosteko
Gizezko seniorren 3. probintziala,
7. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 21

Asti, Zarautz, 10:30ean

13 eta 14 urtez azpiko Beltzak taldeetako sei jokalarik (horietatik bost herrikoak) lan-saioa burutuko dute Gipuzkoako selekzioarekin.

Agenda

Larunbata, 17:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Munduarekiko jarrerak

Gorakada konpainiak Herman Melvilleren testu ezagunenetariko moldatu du, "Moby Dick". Eztabaida dago bi mundu ikuskeren artean: Ismael narratzailearena eta Akab kapitainarena. Ismael filosofo abenturazalea da, naturak liluratuta dagoena eta hari beldurrik ez diona. Akab, berriz, gizon atsekabetua da, eroso sentitzeko natura menpean hartu behar duena. Bizitzaren aurreko jarrera bi tmusikari eta aktoreek kontatuko dituzte. Lan klasikoetara haurrak hurbiltzeko aukera paregabea. Sarrera 3,80 euro.

doinuez osatutako egitaraua aurkeztuko du.

ARANTZAZUKO AMA ELIZA

Igandea, 12:00etan

Alboka Abesbatzak hainbat abesti eskainiko ditu mezan.

Plaza dantza

OKENDO PLAZA

Igandea, 12:00etan

Hilabeteko hirugarren igandea izanik, plaza dantza saioa izango da.

Genero indarkeriaren aurkako eguna

OKENDO PLAZA

Asteazkena 25, 17:30ean

Puzgarri moreak banatuko dituzte eta denen artean puntu erraldoia osatuko da.

HAUR LIBURUTEGIA

Asteazkena 25, 18:00etan

Ipuin kontalari saioa Pello Añorgarekin haur liburutegian. Sarrera doan da. 4 eta 5 urtetako haurrei zuzendutako istoriak eskainiko ditu.

MANUEL LEKUONA

Ostirala 27, 19:30ean

Genero Indarkeriaren aurkako Antzerkia. Makelur taldeak "9 Mosaicos infinitos" lana eskainiko du. Sarrera 3 euro.

ANTONIO MERCERO GUNEA

Osteguna 26ra arte

"Diruaren sexu ezkutua" erakusketa izango da ikusgai. Honetan, emakumeen ekonomiaren alderdi sinbolikoa erakusten da, diru zorroak. Haurralde fundazioa eta Malen Etxea elkartaren eskutik.

Lasarte-Oria

Saribanaketa

MANUEL LEKUONA

Larunbata, 12:00etan

Lasarte-Oriako Literatura Lehiaketa eta Haur Literatura Lehiaketako saribanaketa egingo da.

Zinea

MANUEL LEKUONA

Ostirala, 22:00etan

"Irrational Man" filma Okendo Zinema taldearen zine forum atalean. Woody Allenek idatzi eta zuzendutako filmak drama, misterioa eta komedia nahasten ditu. Joaquin Phoenix eta Emma Stone dira protagonistak. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:00etan

"¡Ups! ¿Donde esta Noe?" animaziozko filmaz gozatzeko aukera izango da haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 19:30ean

"Irrational Man" filma helduen zine atalean. Sarrera 5,50 euro.

Ikastaroa

GANBO ITURRI

Larunbata, 11:00etan

"Indarkeriaren kontra filmikoak" izenburuko ikastaroa eskainiko du Mikel Arregik, Euskal Filmotekako arduraduna

izandakoak. Bi saioetan egingo da jardunaldia. Bazkaria inguruko elkarte batean egingo dute. Izena ematea ganboiturri@gmail.com helbidean, gaur arte.

Zartzuela

MANUEL LEKUONA

Larunbata, 20:00etan

"Luisa Fernanda" zartzuelaren bertsio digitala. Sarrera, aurrez, 7,5 euro, egunean bertan 9 euro.

Santa Zezilia eguna

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Igandea, 11:00etan

Ibaeta Abesbatzak meza girotu eta ostean, kontzertua eskainiko du. Euskal

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, azaroaren 24an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

Greziar irletara bidaiak

Noaia Bidaiak hurrengo urterako bigarren irteera prest du, Greziar irletara kruzeroa astebete zerbitzu guztiak barne.

Irailak 12an irteera eta irailak 19 an buelta. Lasarte-Oriatik autobuses Loiuo aireportura eta bertan hegazkinez.

Informazio gehiago 943 373 613, info@noaobidaiak.com edo ofizinara hurbilduz Hipodromo etorbidea 10. Bulego ordutegia, 09:30etik 16:30era.

Lasartearra elkarteko loteria

Lasartearra elkartek jakinarazi du aurtengo gabonetako loteria, 57.898 zenbakia, bazkideen eskura dagoela.

65ean jaiotakoaren afaria

1965. urtean jaiotakoek azaroaren 28an afaria antolatu dute haien 50 urteurrena ospatzeko. 'El Jardin' jate-txean izango da afaria, 21:30ean. Menua 40 eurotako da eta Laboral Kutxako ES54 3035 0036 150361135575 k/k zenbakian egin behar da diru sarrera azaroak 20a baino lehen. Informazio gehiago eskuratzeko, 653 712 373 Idoia.

63an jaiotakoaren afaria

Aurten ere 63an jaiotakoaren afaria antolatuko da. Azaroaren 21ean, 21:00etan, Goiegi Jatetxean egingo da afaria. Aurrez, Okendo plazan geratuko dira 20:00etan pote bat hartzeko.

Menua 36 eurotako da eta Laboral Kutxako ES13 3035 0036 150361135634 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera.

Informazio gehiago, Agustin Markos, 600 799 772 edo J.F. Solano, 657 770 318.

Sarean

Argia aldizkariaren eraberritzea aztergai

Argia aldizkariak bere itxura aldatu du eta eduki aldetik ere hainbat berrikuntza aurkeztu ditu. Hilabeteetako hausnarketa prozesu baten ostean, egindako eraberritzea izan da.

Formatuari dagokionez, tamaina pixka bat txikitu dute. Azalean ere aldaketak nabari daitezke. Ia mende batez irakurle euskaldunengana iritsi den aldizkari honen ondareari omenaldi txikia egin nahi izan diote eta izena letra larriz jarri dute eta mantxeta osatzen duen bonbila txikiagoa da.

Baina aldizkari mamian dator erabateko iraultza. Lehenik Panorama atala estreinatu dute. Honetan asteroko argazki, albiste, adierazpen eta datuak bilduko ditu. Hemen kokatuko dira ere Xabier Letonaren Gaztelu plazatik artikulua eta Pello Zubiriaren Net Hurbil erreportajeak. Asisko Urmenetaren bineta ere bertan izango da.

Ostean, elkarriketa eta erreportajeak daude, baita Jakoba Errekondoren txokoa ere. Hauetan argazki ikusgarriagoak eta etiketa tematikoak izango dira, hizpide izango diren gaiak lehen begi-kolpena kokatzeko. Sailkape hori paperekoeta webeko Argia hobeto koordinatzeko ere erabiliko da.

Azken orrialdeetan atal berri ugari izango dira. Zuzeneko emanaldien, filmen edo ikusizunen kronikak, Argia osatzen dutenen txoko partikularra, kontraelkarriketa bereziak eta webetik salto egin duen, Beranduegi atala daude.

Aldaketaren ostean, harpidedun eta irakurleen iritzia bildu nahi dute orain Argiako lagunek. #ArgiaEraberritua erabiliz txioak bidali edo web orrialdeko iruzkinetan utzi iritzia.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

'Amalur' eta 'Euri tanta banintz' kalean

Baserria eta Joxean Ormazabalen olerkiak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lan berrien oinarri

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen CD berri aurkeztu zuten lehengo larunbatean, Tolosan. Lan bikoitza da herriko pailazoen argitara eman dutena. Batetik 'Amalur' diskoa dago baserriko bizitzan oinarritua eta bestetik 'Euro tanta banintz' diskoa. Honetan Joxean Ormazabalen hainbat olerki abesti bihurtu dituzte.

Katxiporretako lagunek bere azken lana Tolosako Zerkausiko SukalTalka aretoan, giro ederrean eta lagunez inguratuta aurkeztu zuten larunbatean.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera izan ziren, esaterako, Alex Sardui eta Petti, diskako abesti batzuetako ahots gonbidatuak, baita Jatsu Ormazabal eta Ana Zabala ere, Joxan Ormazabalen olerkien langintzan lagundu dutenak. Eta ezin falta Gorriti azitia ere, haren marrazkiek ilustratu baitute besteak beste azken proiektua.

Aurkezpena festa giroan hasi zuten pailazoen, baserriarren azokan erosketak eginenez eta ostean lanaren inguruko azalpenak eman zituzten.

'Amalur'

Oraingoan disko-liburu bikoitza osatu dute Katxiporretako pailazoen.

CD batek 'Amalur' du izena eta baserrian dago oinarritua.

Porrotxek azaldu zuenez, "baserriaren inguruan, nekazaritza, abeltzaintza eta elikaduraren inguruan hausnarketa egin eta bide berria jorratzen ari gara. Guk egin nahi genuen baserri hartako beste disko eta istorio gaurkotu bat".

Diskoa osatzeko Jakoba Errekondo eta Sosola eta Iztueta baserriko lagunak bidaide izan dituzte. Eta Julian Tokero herritarra izan da diskoen diseinu orokorra eta ilustrazioak landu dituenak.

Honetan egungo baserrian kokatutako letra zein doinuetan sorpresa bat baino gehiago topatuko dute pailazoen zaleek zein, beste barik, musikazale zarentek.

Ormazabalen olerkiak

Bestalde, Joxan Ormazabalen hainbat olerki abesti bihurtu



Pirritx, Porrotx eta Marimotots lagunez inguratuta egon ziren bere azken diskoen aurkezpenean.

KATXIPORRETA

dituzte pailazoen 'Euri tanta banintz' diskoan.

Ana Zabala, Txoan Ormazabal eta Jatsu Ormazabal, Joxan Ormazabalen familia) ko kideak izan dira diskoen olerkien aukeraketa egin dutenak. Abestien lotura diren ipuintxoak ere haiek eginak dira.

Xabier Zabala konpositoreak azpimarratu zuenez, "olerkiak pasa zizkidatenean, bat-batean oso bisualak iruditu zitzaizkidan. Niri bisuala

egitean errazago egiten zait musika sortzea".

Letra fresko eta jostalariak dira, doinuz lagunduta. Izenburu bereko kantua da honen adibide argia. Gainera, diskoak Juan Gorritiren marrazkiak ditu.

Lagun asko diskoan

Baina lagun hauetaz guztiez gain, beste hainbatek ere parte hartu dute bi disko hauetan, hala nola, Onintza Enbeitia, Unai Iturriaga,

Miren Amuriza, Imanol Urbieta, Donostiako orfeo txikia eta gaztea, Idiazabalgo eta Zaldibiako haur eta gazteak, Joseba Tapia, Xabier Leturia edo Kaabestri taldea.

Ikuskizuna martxan

Era berean, 'Amalur' ikuskizuna ere martxan dute dagoeneko. Legazpia, Berriz, Amurrio Irurtzun... Euskal herriko txoko askotara hurbilduko dira herriko pailazoen ikuskizun berria erakustera.

LAB larunbateko manifestazioarekin bat

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo LAB sindikatuko kideek Zubietako frontoian egin zuten agerraldia asteazkenean errauskailuaren proiektuaren aurka daudela esateko.

Herriko bozeramaile Jon Martinek adierazi zuen Zubietan kokatuko duten erraustegia ez dela beharrezkoa eta "frogatua" geratu dela. Izan ere, LABeko kideen ustez, pertsonen osasunerako kaltegarria ez den kudeaketa merkeagoa eta ingurunearekiko jasagarriagoa egin liteke.

Larunbatean Okendo plazatik aterako den manifestazioarekin bat egiten dutela azaldu eta bertara joateko deialdia luzatu zuten.

Makroproiektuen aurka

Gipuzkoako Foru Aldundia gidatzen duten alderdien kontra agertu ziren Lasarte-Oriako eta Usurbilgo LABekoak.

Azpimarratu zuten proiektua berreskuratzeko "sekulako gain kostua" izango duela, berriro ere "neurritz kanpoko



Lasarte-Oriako eta Usurbilgo LAB sindikatuko kideak Zubietan.

proiektuen garaira" bueltatuz. Halaber, gizarte politiketan murrizketak egiten diren bitartean, "enpresa handien eta erakunde finantziarioen mesede" diren politikak bultzatzea salatzen zuten.

EAJren eta PSEren jarrera

Lasarte-Oriako azaroaren 10ean egin zen Udal plenoan ekarri zuten gogora. Zehazki EAJko zinegotzi Jon Antxordokiren hitzak. Martinek nabarmendu zuen "lotsa-

ria" iruditzen zaiela "errauskailuaren eragina Donostiako su festek dutenarekin" alderatzea.

Herritarren hitza errespetatzeko eskatu zioten Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Udal batzarrek Zubietako proiektuaren aurka egin dutenez, LAB sindikatuaren ustez "inposaketa baten aurrean gaude".

Proiektua Zubietan ez ezik, beste inon ere nahi ez dutela garbi utzi zuten: "Burua ondo duenak ez du etxe ondoan nahi, eta bihotz ona duenak besteen etxe ondoan ere ez du nahi".

Manifestazioarekin bat

Agerraldia bukatu dute aipatuz biharko manifestazioan egongo direla.

Aire Garbia plataformak deituta, herriko Okendo plazatik aterako da arratsaldeko 17:00etan.

Azaroaren 14ean egin zuten agerraldian Aire Garbia plataformak azpimarratu zuen proiektua geratzeko oraindik ere "posible" zela.

Horretarako, herritarrek gonbidatu dituzte biharko errauskailuaren kontrako mobilizaziora.